

Suzko lorea

Bilbon badauka bere plaka efimeroa bezain garrantzitsua izan zen 'Eguna' euskarazko egunkariak. Udalak Posta kalean gogoratu gura izan du ahalegin bat egon zela gerraren beroan, Hego Euskal Herri guztia ia faxistek hartua zegoelarik, bihotzak adoretzeko eta berriak zabaltzeko bertako hizkuntzan


Laurogei urte joan dira Eusko Jaurilaritzaren bultzadaz *Eguna* kalera-tu zela. Plaka jarri duten 1937ko urtarrilaren lehen *Eguna* sortu zuten lekuan bertan, Bilboko Posta kaleko 17an. Euskara hutsean idatzitako lehen egunkaria izan zen, Espainiako Gerra Zibilaren beroan, eta ekainean Bilbo tropa frankistek hartu zutenean desagertu zen. Zortzi hileko ahalegina izan zen gudarosteak eta herri-tarrak adoretzeko, horretarako tarte gutxi zegoen arren. Artikulu hau idazten aritu garen egunean, baina orain dela laurogei urte, hara zer zekarrren: "Goizean-goiz asita, gure gudarosteak jo ta su jardun zuan atzokoan, etsaiei gogor oldartuaz, Markina, Eibar ta Orduña aldean. Lenengo leku ortan, zigor astuna ezari zien paxistei, ta bonba-jauritkin bat, munizio kaxa bi ta gotorgayak kendu. Eibar aldean, Afate mendian, gureak auffera egin dabe, etsaiekin tiroketa gaitza egin ondoren. Orduña n'aldra bat, ikusketan, piñadía bařena joan zan, eta San Pedro'ko etsaien parapetoen uřera eldu ta iges-eragin oiei, guretařak 36 txartez eta munizio kaxa bat artuaz. Kalamua aldean ere, ederki ari izan da gure artilleria, paxisten gulefoetako parapetoak autsirik, eta polvorin bati etzanda eraginaz".

Estiloa, egoerara moldatua

Estilo bizi bereziarekin zetorren *Eguna*. Egoera latzetan morala zelan mantendu, hara argitalpenaren helburuetako bat. Nazioarteko eragileen laguntza falta, etsaiaren medio handiak eta norberarenaren eskasia, Nafarroa eroria, Gipuzkoa ere geroago hartua... Lumak trebatu ziren Hegoaldeko Pizkundearrekin eta aurretiko ekimenetatik. Ipar Euskal Herrian euskarazko kazetaritzak tradizio luzeagoa zuen arren —*Eskualduna* astekariak, adibidez, 7.000 irakurle zituen—, Hegoaldean 1913an sortutako Euzkadi hasi zen lehen orrialdean euskarazko artikulutxoak sartzen. Kirikiñoen zeregina zen hori. Haren ekimenaz joan zen gero eta pisu handiagoa hartzen euskarazko atala, hariak eta 1928an Orixe hartu zuen arte ardura hori bere gain. Gerago Lauxeta era ibili zen, eta azken bestak hilabetetan, Euzkadi debekatu zuten arte, Manu Ziarsolo *Abeletxe*. 1923an, Bilboko Aberriz izeneko egunkarian ere euskaraz idazten zen. Donostian, halaber, *Euskal-Esnalaz* hasi ziren argitaratzen eta indartsu sartu zen *Argia* astekaria ere. Zabalkunde aldetik eta idazkera aldetik eredu garria



Udalak Posta kalean gogoratu gura izan du euskara hutsean idatzitako lehen egunkaria



Estilo bizi bereziarekin zetorren 'Eguna'. Egoera latzetan morala zelan mantendu, hara bere helburuetako bat

izan zen Zeruko Argia haren proiektua. Gipuzkoan, bestalde, *El Día* egunkariak ere Artzele donostiarraren eskutik eguneroko euskarazko gaiak argitaratzen zituen.

Garaiko euskarazko aldirietan —aipatutako *Argia* zein *Ekin*, edo *Jesusen Biotzaren Deya*— idazle-belaunaldi osoa trebatu zen kazetari zereginetan. Euskal prentsaren sarea indartu egin zen. *Euzkadi* egunkariaren tradizioan *Euzko* izeneko astekaria sortu zen Bilbon 1932an, Manu Ziarsoloren beraren ekimenez. Beraz, beste txart beste Bilboko

Euzko eta Donostiako *Argia*, bi tradizio aski desberdin baina

finean helburu berekoak, bi horiek izan ziren *Eguna* egunkaria ahalbideratu zutenak. *Egunak* Euzko Alderdi Jeltzalearen ikuspuntuak zabaltu zituen, antifaxismoa ardatz. Euskal abertzaletasun jeltzalearen bozgorailu izan zen eta hizkuntza abertzaletasun horren muintzat zeukan. Gainera bere ipar izan ziren kristautasunaren eta katolikotasunaren defentsa egitea.

Eusko Jaurilaritzaren alde jokatzea eta gizarte-arazoak arduratzea, izan obreroenak edo arrantzaleenak edo baserri-tarrenak: "Bakartade aundian doguz baserri-tarak. Bakartadean dogunezanez euron eska-

bideak, euron beařak, euron diadařak entzun bear leukiezanekana ez dira eltzen. Bidean galten dira".

Taldearen garrantzia

Eguna aurrera ateratzeko lan-taldean zeuden Manu Ziarsolo *Abeletxe*, Agustín Zubikarai, Eusebio Erkiaga, Alexander Mendizabalek eta Jose Maria Arizmendiareta, beste hainbaten kolaborazioekin. Beraiek egin behar izan zioten aurre herritarren egoera gogorari, fronteko notizia eskasei: "Onetaz gañera zigortuak, espetxeratuak eta abar. Bildura eriko sote guzian. Afantzaliak gosearen mende egon bear, afantzara joaten uzten ez diotelako. Lan olak geldirik. Falangistak pafokoaren etxearen jabe eginik. Eta rekteak euzko-batzokian sarturik guziaren jabe egin dira" zioten, Gipuzkoa faxisten mende erori berri, 1937ko urtarrilaren 27ko edizioan.

Espainiako 1936ko altxamendu militar faxistak honenbestez, eta ondorengo gerra eta errepresioak, zapuztu egin zuten guztiz euskal kazetaritzaren loraldia. Euskarazko egunkariaren proiektua bertan behera geratu ez ezik, astekaria euraire ere desagertu ziren. Euskarazko lehenengo egunkaria sortzeko 55 urte luze igaro ziren. Hura ere itxi egin zuten. Eta hala ere berriro jarri zuten euskal irakurleek zutik euskarazko kazeta bat.

Igor Estankona

'Lo zaudela zabaltu dizkizut begiak'

Mikel Etxabururen *Lo zaudela zabaltu dizkizut begiak* (Erein, 2016) urbanoa da baina naturarekiko erreferentziaduna, itzaropentsua baina hitsa, geldoa arean. Gauzen inguruan oharretako deia da zelanbait. Autoreak berak esana du: "Poesiak badu errealitate eraldatzeko mailu hori. Niretzat poesia hori da: begiratzetik ikustera dagoen urrats hori poemetan islatzea. Zein da urrats hori? Kontzientziarena".

Eta kontzientzia poetikoa eta soziala nahastean, ibiltzen ditu kaleak, barnekoak zein kanpokoak, bihotz-begiak zabalik, eta ez hainbeste begiak euraire. Horrela errebelatzen zaizkio gaueko biztanleak, kutxazainetako maizterrak, ikusezin bihurtu ditugun geure manuak: "Eguzkia irten da./ Plazetako egurrezko eserlekuak okupatuta daude./ beti daude okupatuta,/ eta beti dira berdinak/ egurrezko eserlekuak hartzen dituztenak".

Horregatik liburu honen hariak biderkatu egiten dira hiriarren irudi-amarauna sortu arte. Fikzio pertsonal antzeko bat da amaraun hori, esperientziak eta oraina lotzen dituen modu aski erreale batean, lirismo aski hausnartu batekin.

'Erleak, satorrak, beleak'

Edo! Argitaletxeak argitaratua, Gaizka Sarasolaren *Erleak, satorrak, beleak* antzerki lana definitzeko, argitaratzaileek euren diote hiru teatro-testu topatuko ditugula liburu honetan: *Urak itiki dire*, *Lur azpitxoak* eta *Talaka*. Bere poetikoa zorrotza da Sarasolaren teatroa, eta bere zorrotzean mingarria, ezerosoa bezain erreala delako kontatzen duena. Inguruan duen erreallitatea gordin hartu du egileak, eta bufoiaren arimari fidel, itsusia edertu du, antzerki bilakatu du. Liburu hau harribitxi bat da, ezohikoa euskal literaturan: teatro-testu-gintzaren tradizio moderno eta garaikide ugariaren aztarnak suma daitezke bertan eta, oroz gain, gaurko jendarateak erantzun nahi lituzkeen galderak taularatzen dira, nabarmen. Gaizka Sarasola Iartzabal (Lesaka, 1974), txistulari eta musika irakaslea, Mairu Antzerki Tailerraren sortzaileetarikoa. Taldetik horren zenbait lanetarako musika sortu eta testuak idatzi zituen; horien artean *Erregea*, soldadua eta bufoia antzezlan, 2005an Bortzirietako Kafe-Antzerki Beka sarjia jaso zuena.

